

Frantzisko Garate, zazpi senideetan bigarrena izan zen. Baserritar familia apal batean jaio zen, 1857ko otsailaren 3an, Azpeitian, Loiolako dorretxetik oso gertu dagoen baserri batean. 14 urte zituela Urduñako Antzinako Andre Mariaren ikastetxera joan zen, morroi lanean aritzera.

1874an sartu zen Espainiako jesuiten Nobiziatuan, Frantzia hegoaldean, Poyanne herrian, jesuitak Espainiatik bidalita baitzeuden orduan. 1876ko otsailaren 2an egin zituen bere lehen erlijio-botoak, eta 1877an Santiago Apostoluaren ikastetxera, La Guardiara (Pontevedra) izan zen bidalia, erizain lanerako. Han hamar urtez aritu zen ikastetxeko mutikoen osasuna zaintzen eta sakristiaz arduratzen. Gaixoekin erakusten zuen entregak eta maitasunak laster ekarri zion mundu guztiaren miresmena.

Anaia Garatek 1887ko abuztuaren 15ean egin zituen bere behin betiko botoak eta Deustura (Bilbo) bidali zuten 1888an, bertako Ikasketa Nagusien Ikastetxe edo Unibertsitateko atezain lanean aritzeko. Postu horretan jarraitu zuen 1929ko irailaren 9an hil zen arte. Wlodimir Ledochowski Aita Jeneralak, Anaia honen berezitasunak aipatzerakoan, berarekin harremana zuten guztiak harritzen zituen ezaugarriak azpimarratu zituen: "Zuhurtzia miresgarria, 41 urte pasako zerbitzuan frogan jarria, adin eta giza maila guztietako pertsonak maiz ibili ohi ziren etxeko sarrera batean; apaltasuna xalotasun zoragarri batez apaindua; karitatea, sen espiritual batez hornitua balego bezala, behar den zerbitzua antzeman eta aurreikusten dakiena...".

Ezaugarri hauekin bizi zuen Anaia Garatek bere "egunerokotasun gogorra": leuntasun eta adeitasun berberarekin hartzen zituen eskale behartsuenak eta aberatsak; samurtasun berberarekin tratatzen zituen batzuek nahiz besteak; etengabeko entrega batez eta kexarik gabe ibiliko zen Unibertsitate handiko eskaileretan gora eta behera, Aita-jesuita eta Irakasleen mandatuak eramaten eta ikasleei deitzen.

Bera ezagutu zutenetako batek kontatzen digu nola ikusi, estimatu eta maitatu zuen gizon hau: "Guztiontzat zuen Anaia Garatek hitz egoki, keinu, irribarre edo irtenbide maitagarriren bat; guztiakin beti zen irekia, abegikorra, onbera, eskuzabala. Baina beti, umiltasunez eta naturaltasunez baita ere; inola ere ez, jokabide artifizial edo inozorik, eta are gutxiago, sineskortasun inozo eta onkeriazkorik. Laster igartzen zioten gazteek, Deustuko atezainagatik zera baitzioten: "Anaia Finuras santu bat da, baina... baita argia ere".